

Gogoan hartu damutu baino lehen

Zure artekariak beti emango dizu informazioa... Ez bazaude seguru, bila gaitzazu

“Orainak geroak baino gehiago balio du”. Zenbat “orain” balio ditu zure osasunak?



Esaldi hori erabiltzen dugunean, denboraz ari gara. Eta “Hobe aurrea hartzea, gero damutzea baino” leloa erabiltzen dugunean, zure segurtasunean pentsatzen dugu, **osasun aseguruak aurrea hartzen baitiete etorkizuneko balizko gertaerei**. Hala, ongi aseguraturuta zaude, **larrialdiren** bat gertatuz gero.

Osasunean, denborak agintzen du. Denbora behar da errekuaratzeko; denbora, zure osasunari karrera irabazteko; faktore erabakigarria da denbora, gaixotasuna gainditzeko laguntzeko. Errekuperatu egin behar baduzu, lagun bihurtzen da; azkar artatu behar bazaituzte, berriz, etsai.

Osasuntsu zaudenean komeni da osasun aseguruak kontratatzea. Horrela, etorkizunera begira bermatzen duzu zure osasuna, eta aurretiazko **osasun arazoak** konpont-

zen dituzu, alegia, osasun aseguruak kontratatu aurretik zenituenak edo diagnostikatu-takoak. Normalean, osasun aseguruak ez dituzte halakoak estaltzen.

Horregatik, **“denbora irabazi”** eta osasuntsu zaudenean antolatu behar duzu zure osasuna. Askoz ere lasaiago sentituko zara, Osasun Publikoan murrizketak egin arren.

Zenbat balio du zure osasunak? Askol Pentasa zenbat: Unesporen 2014ko Memoria Sozialaren arabera, 80.146 ezbehar kudeatu dira Espainian, **13.824.165 €-ko kostuarekin guztira**, eta, egia esan, ez genuke jakingo gure osasunari eta gure senideenari prezioa jartzen.

Osasun aseguruak ez da diru kontua, denbora kontua baizik. Ez galdu denbora.

#E2K
BROKERNET
Aseguru Artekarien
Sare Nazionala

Hileroko buletina
Nº 32 / Urria 2015

Prezioa eta estaldura, elkarren eskutik

Krisi garaian, gastuak gutxitzen saiatzen gara; egoera batzuetan, baina, ez dira onak murrizketak. Jatetxe batek kostuak murriztuz ditzake ur-botilaren markan, baina ez argiak itzalita eta, are gutxiago, berogailuan edo aire girotuan aurreztu. Txorakeria da kafe-makina itzaltzea eta kafea eskatzen dutenean soilik piztea, asko kontsumitzen baitu. **Gastuak murrizteko psikosia dela-eta, akats konponezinak egiten ditugu; aseguruetan, besteak beste, dagokiena baino balio txikiagoa aitortuta. Infra-asegurua** deitzen zaie halakoei.

A ze arriskua, arrisku gehiago gehitzea! Eta okerragoa dena: dena antolatuta duzula sinestea. Arrisku naturalak egonda aseguru egoki bat ez edukita, panorama txartu baino ez duzu egingo ezbeharren bat edukiz gero.

Ongi definitzeko: **infra-aseguruarekin**, poliza bat kontratatu eta berez duena baino balio txikiagoa ematen diozu bermatutako ondasunari. **“Itxuraz”, diru pixka bat aurretik duzu, hori kontratatuta, baina zerbait gertatuz gero, babesik gabe utziko zaitu.**

Adibide bat jarriko dizut, hobeto ulertzeko: zure altzariek eta gauzek 60.000 euroko balioa dute, baina zuk 30.000 eurora arte bakarrik aseguratu dituzu eta ezbehar bat izan duzu. Aseguratu duzunaren arabera izango da emango dizuten kalte-ordaina, hau da, %50ekoa. Zure akatsa da 30.000 eurora arte babestuta zaudela pentsatzea, baina ez, ez da horrela, eta ezbeharren bat edukiz gero, arau proportzional bera aplikatuko dute kalte-ordaina emateko.

Aseguru kontuetan, ez duzu poliza bat erosten, estaldura bat baizik eta, horretarako, jakin behar duzu ondorio larriak dakartzala ongi ez egiteak.



Heriotzak banandu arte, edo ez?



Bazen behin, elkarrekin irteten 7 urte zeramatzan bikote bat. Egun batean, ezkontzea erabaki zuten, eta ezkontza antolatzen hasi ziren. Lehenengo, eguna zehaztu zuten; gero, jatetxea, zeremonia, gonbidatuak, jantziak, gonbidapenak, orkestra, menua, ezkontza-horniak, loreak, bidaia...

15.000 euro guztira, ezustekoak kenduta. Diru asko, alajaina, egun berezi horretan denok ikaragarri gozatzeko. Lan egonkorra zuten biek, eta dirua aurretuta, bankuan.

Familiak ere alde zeuden, eta ezkontza antolatzen lagundu zuten; oso praktikoa izaki, ezkontza-aseguruei buruzko artikulatu bat irakurri zuten emaztegaiak interneten.

—Hara! Eta azken orduan zerbait gertatzen bada?

—Zer gertatuko da, bada?

—Ez dakit. Imaginatu cateringa kontratatu eta ez duela agindutakoa betetzen,

edo euria egiten duela eta bertan behera utzi behar dugula kanporako antolatutako orkestra...

Bere telefono mugikorreko kontaktuak zabaldu, eta "NIRE ASEGURU ARTEKARIA" bilatu zuten senargaiak. Eta bai, bada, halako aseguruak, **ekitaldiak bertan behera uzteko aseguruak**, alegia, estaldura nagusia bertan behera uztea dutenak. Hau da, dirua itzultzen dizute, **ekitaldia ezkongaien borondatez kanpoko arrazoiren bategatik bertan behera geratuz gero**.

Beste berme asko ere baditu ekitaldiak bertan behera uzteko aseguruak; dirua ez galtzea edo, gutxienez, "gastuaren zatirik handiena" berreskuratzea bermatzen du.

Nolanahi ere, zoriontsu izan zen bikotea... Bikiak izan zituzten, eta etxea erosi zuten; etxerako etxe-aseguru bat kontratatu zuten... *baina beste egunen batean kontatuko dugu hori*.

Bahiketa eta Erreskatea

2014ko abuztuaren 24an, bere bahiketarik libratu zuten, Sirian, Peter Theo Curtis kazetari estatubatuarra. Hala ere, berriak ez zuten interes handirik piztu; 5 egun lehenago, lepoa moztu zioten bere lagun James Foleyri, eta berri horrek bereganatu zuten arreta guztia.

Horrelako gertakariak **Bahiketa eta Erreskate aseguru** batekin babes daitezke. Terrorismoa, pirateria edo erreskatea eskatzen duten bahiketarik direla-eta, euren langileak segurtasuna nekez bermatzen herrialdeetara bidaltzen dituzten enpresek kontratatzen dituzte.

Kontinente batzuk oso konplikatuak dira, Afrika, Asia eta Ekialde Hurbila, besteak beste. Profil altuko exekutiboak, petrolio, erakuntza eta telekomunikazio-enpresetako langileak edo finantza-konpainietakoak (eta horien senideak) dira balizko arriskua duten taldeak.

Horrelako poliza batek ondorengo hauek estaltzen ditu: krisiaren kudeaketa, legezko betebeharrak, errehabilitazioa, ordainsaria eta negoziazioa.



Nire scooterrean erabateko ezbeharrak izan dute. Zenbatekoa da kalte-ordaina?

Auto batek jo ninduen, nire scooterrean nindoala, eta erabateko ezbeharrak izan dute. Jo ninduenaren aseguru-etxeak bere errua onartu du. Nire motorrak hilabete bat zuten, eta 1.800 euro kostatu zitzaizdan. Zenbatekoa da kalte-ordaina?

Zure artekariaren erantzuna

Baldintza bereko hilabete bateko motor batek merkatuan duen prezioa bestekoa da kalte-ordaina. Gure aholkua: aztertu salerosketa prezioak. Ekarki gure artekaritza-bulegora, eta guk kudeatuko dugu zure kalte-ordaina.

Ikerketa

Kontsultak